BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

4714

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 25ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, J.L. French Ansola SRL enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematen diona, Etxebarriako udalerrian (Bizkaia) injektaturiko aluminio galdatuzko piezak fabrika ditzan.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 22an, Carlos Mendiola Ugalde jaunak, J.L. French Ansola, SRL enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Etxebarriako (Bizkaia) udalerrian injektaturiko aluminio galdatuzko piezak fabrikatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, Etxebarriako Udalak (2006ko urriaren 24a) eman zuen hirigintza-txostena eta dokumentazio tekniko hau aurkeztu zituen:

– Ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko Oinarrizko Proiektua eta agiriak (2006ko abendua).

– Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua).

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, J.L. French Ansola, SRL enpresak, besteak beste, atmosfera kutsatu dezakeen instalazio gisa isurtze-foku desberdinak abian jartzeko baimenak zituen, 2000ko abenduaren 29koa, 2005eko urriaren 13koa, 2005eko urriaren 14koa eta 2006ko urriaren 2koa, hurrenez hurren, eta isurtzeen inguruan indarrean den araudiak xedatutakoari jarraituz; industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroan inskripzioa, 2001eko martxoaren 6koa eta hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimena, 2005eko urriaren 14ko Ebazpenaren bidez, 2006ko apirilaren 27ko Ebazpenak aldatu zuena, hondakinen inguruan indarrean den araudiak xedatutakoari jarraituz; eta Etxebarriako Udaleko kolektorera isurtzeko baimena, 2003ko ekainaren 27koa, isurketen inguruan indarrean den araudiak xedatutakoari jarraituz.

2007ko otsailaren 23an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, ingurumen organoak proiektua jendaurrean jartzeko agindu zezan. Zehazki, Etxebarriako Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari egin zitzaien kontsulta.

Ingurumen organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari 2007ko apirilaren 4an; espedientea 2007ko azaroaren 14an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko abenduaren 17an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, J.L. French Ansola, SRL enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2008ko urtarrilaren 23an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru egunkaritan argitaratu zen 2007ko urtarrilaren 27an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko martxoaren 3an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Etxebarriako Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko apirilaren 8an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa J.L. French Ansola, SRL enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. J.L. French Ansola, SRL enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen sortzaileak behar dituen baimenak; kolektorera isurketak egiteko baimena; eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta hari aurrea hartzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, J.L. French Ansola, SRL enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege

Orokorrean aurreikusitako izapideak, eta Etxebarriako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak eskatu dira, espedientean agertzen den bezala.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen galdaketari buruzko 2005eko maiatzeko «Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry» BREF agiriaren, biltegiratzeen isurtzeei buruzko 2005eko maiatzeko «Reference Document on Best Available Techniques on Emissions from Storage» BREF agiriaren eta hozteari buruzko 2001eko abenduko Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems BREF agiriaren edukiak hartu dituzte kontuan.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta J.L. French Ansola, SRL enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko apirilaren 8an emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Etxebarriako (Bizkaia) udalerriko Galartza Industrialdeko 1. zenbakian helbide soziala eta IFK: B-48966154 zenbakia duen J.L. French Ansola, SRL enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, aipatu helbidean kokatutako instalazioetan injektaturiko aluminioa galdatzeko jarduerarako eta Ebazpen honetako Bigarren atalean ezarritako baldintzak aplikatuz.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.5.b) kategorian sartuta dago, «Metal ez-ferrosoak galdatzeko instalazioak, aleazioa eta berreskuratze-produktuak barne (fintzea), galdategian moldekatzea, berunerako eta kadmiorako 4 tona eguneko baino galdatze-ahalmen handiagoa, edo gainerako metaletarako 20 tona eguneko galdatze-ahalmena dutenak» izenekoan.

J.L. French Ansola, SRL enpresa Galartzako Industrialdean kokatzen da, Etxebarriako hirigunearen mendebaldean, eta 28.626 m^2 betetzen ditu. Horietatik 18.047 m^2 eraikita daude eta jardueraren ingurunea mistoa da, landa-erabilera eta industria-erabilera du.

Jarduera nagusia aluminiozko piezak presiozko injekzioaren bidez fabrikatu eta ondoren pieza horiek mekanizatzea da; bereziki, automobilgintzaren sektorerako eta etxetresna elektrikoen sektorerako izaten dira.

Prozesuan bi fase edo lerro nagusi bereizten dira:

– aluminioa galdatzea eta ondoren presiozko injekzioaren bidez isurtzea.

– piezen mekanizazio– eta akabera-eragiketak.

Injektaturiko aluminio galdatuzko piezen urteko produkzioa 11.597 tonakoa da. Hala ere, galdatzeari dagokionez, urteko produkzio-ahalmena 25.000 tonakoa da; galdaketan, 18.000 tona urteko eta mekanizazioan 9.000 tona urteko.

Sailkatutako lehengaia (aluminioa lingotetan, karter zatikatua edo prozesu beraren itzulerak) jaso eta nabearen barruan kokatutako zuloetan biltegiratzen da.

Materiala gas naturalaren bidez elikatutako galdatzeko dorre batean kargatzen da eta bertan, 600-700º C-tan galdatzen da. Ondoren, galdatutako metala mantentze-labe batera pasatzen da. Gainera, beste txikiagoak diren beste hiru labe daude, lingotea galdatzeko eta metalak eskatutako bestelako konposizioak mantentzeko.

Aluminioa material erregogorreko zali batzuetan isurtzen da eta orgatilen bidez dauden 8 injekzio-makinetan garraiatzen da. Makinetako bakoitzak galdatutako metalarentzako mantentze-labe bat du eta bertatik, kargatzaile baten bidez presioz moldean sartzen da, hozte kontrolatuaren bidez gogortu dadin.

Ireki ondoren, pieza ateratzen da, prentsetan ertzak kentzen zaizkio eta mekanizazio eta gainazaleko akabera eragiketetara (granailatzea, bibraraztea) pasatzen dira.

Azkenik, etiketatu, paketatu eta biltegiratu egiten dira bidali ahal izateko.

Erreus, itzulera edo mazaroteen % 100 berrerabiltzen dira.

Energia hauek erabiltzen dira instalazioan: energia elektrikoa makina eta argiztapenerako; gas naturala urtzeko labe, mantentze-labe eta berogailurako; gasolioa barruko garraioko orgatilentzako.

12 isurtze-foku zarratu daude. Hauek dira atmosferara isurtzeak egiten dituzten instalazioak: galdatzeko dorreari eta mantentze-labeari dagokion foku bat; lingotea urtzeko 3 labeak; 8 injekzio-makinak (7 foku, bi makinek erauzketa partekatzen baitute), eta moldeak garbitzeko upelaren xurgapena.

Galdatzeko dorrearen eta mantentze-labearen xurgapenak iragazketa aurrebereizgailu ziklonikoan eta mahuka-iragazkia ditu. Injekzio-makinek hiru etapetan gauzatzen den iragazketa-sistema dute, bereizgailu-kaseten bidez, olioei eta desmoldekatzaileari eusteko, eta horiek garbitzeko sistema automatikoa dute. Gainerako fokuek aurretiazko iragazketa-sistemarik gabe isurtzen dute.

Osasun eta industria erabileretarako ura erabiltzen da. Sortzen diren industriako efluenteak hozte-zirkuituen garbiketa-urak (isurketa puntuala eta neutralizazioaren ondorengoa) eta desmoldekatzailea duten uren zirkuituko efluenteak, leunketarako bibrarazteko makinen efluenteak eta mekanizazio-zentroetako garbigailuen efluenteak dira.

Industriako isurketetarako, koagulazio-malutapenaren fisiko-kimikoko araztegia dago, 5 m^3/h-ko dimentsioa duena, eta olio flotatzaileak bereizteko aurretratamendua (skimmer) eta koagulazioa,

neutralizazioa (pH-a sodaren bidez zuzentzea), malutapena (polielektrolito anionikoa), flotazioa (DAF aeroflotazioa), geruza anitzeko ohantzeko iragazketa eta lohien tratamendua (prentsa-iragazkian loditu eta deshidratatzea) ditu.

Efluente mota bakoitzerako sare bereiziak daude: ur sanitarioak, euri-urak eta industria-urak. Euri-urak Urko ibaiaren, Artibairen ibaiadarraren, ibilgura isurtzen dira zuzenean. Ur sanitarioak eta industria-urak kolektorera isurtzen dira puntu desberdinetan.

Proiektuak, besteak beste, galdaketaren sektoreko 2005eko maiatzeko BREF agiriak (Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry) jasotzen dituen eta enpresak barne hartu dituen Teknika Erabilgarri Onenen (TEO) artean honako hauek azpimarra daitezke: Lehengaia (txatarra, lingoteak, itzulerak) estalpean eta iragazgaiztutako lurzoruaren gainean biltegiratzea; soberan dauden piezen isurbideak % 100 birziklatzea; galdatzeko dorrearen eta urtzeko labeen xurgapena kanpaiaren eta tximiniaren bidez kanpora isurtzea; galdatzeko dorrerako eta mantentze-laberako keak iragazteko sistema; presio altuko injekzioa, uraren eta desmoldekatzailearen kontsumoa minimizatuz; lainoak injekzio-makinetan xurgatu eta iragaztea; hondakin-urak araztea eta lohiak prentsa-iragazkian deshidratatzea.

Hozte-zirkuitutik datozen uren fluxuei hozteari buruzko 2001eko abenduko zeharkako BREF agiria aplikatzen zaie (Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems).

Bigarrena.– Honako baldintzak eta eskakizunak ezartzea J.L. French Ansola, SRL enpresak Etxebarriako udalerrian injektaturiko aluminio galdatuzko piezak fabrikatzeko jarduera ustiatzeko:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, J.L. French Ansola, SRL enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

B.1.1– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1– Baldintza orokorrak.

J.L. French Ansola, SRL enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren. Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura– eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

J.L. French Ansola, SRL enpresaren instalazioak foku hauek ditu, indarrean den araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Diametroa (m)	Katalogazioa		UTM koodernatuak	
					Taldea	Epigrafea	X	Y
1	48001498-01	F3 - Soda duten ultrasoinuz moldeak garbitzea	8,5	0,18	C	3.12.	542.031	4.789.443
2	48001498-02	F5 - Galdatzeko dorrea + 6. labea	15,0	2,20	B	2.4.2.	542.209	4.789.403
3	48001498-03	F6 - 4. labea	12,0	0,50	B	2.4.2.	542.130	4.789.423
4	48001498-04	F7 - 5. labea	12,0	0,50	B	2.4.2.	542.128	4.789.418
5	48001498-05	F8 - 3. labea	14,0	0,50	B	2.4.2.	542.148	4.789.428
6	48001498-06	F9 - 122. makina	12,0	0,60	C	3.12.	542.137	4.789.400
7	48001498-07	F10 - 123. makina	12,0	0,60	C	3.12.	542.155	4.789.393
8	48001498-08	F11 - 126. makina	12,0	0,60	C	3.12.	542.174	4.789.386
9	48001498-09	F12 - 127. makina	15,0	0,70	C	3.12.	542.200	4.789.377
10	48001498-10	F13 - 128. makina	15,0	0,70	C	3.12.	542.192	4.789.381
11	48001498-11	F14 - 129. eta 130. makinak	15,0	1,00	C	3.12.		
12	48001498-12	F15 - 131. makina	15,0	1,00	C	3.12.		

11. eta 12. fokuen UTM koordenatuei buruzko datuak aurkeztu beharko dira.

Gainera, erregimen eteneko isurtze barreiatuak sortzen dira honako prozesuotan:

– Granailatzeko makinan, iragazketaren ondotik ez baitu kanpora isurtzen duen fokurik.

– Injekzio-prozesuetan.

– Urtze-prozesuen nabe berrian.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Atmosferara isurtzen diren gai poluitzaileek ondorengo balioak ez gainditzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1. fokua F3 - Soda duten ultrasoinuz moldeak garbitzea	Guztizko partikulak	30 mg/Nm^3
2. fokua F5 - Galdatzeko dorrea + 6. labea	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Sufre dioxidoa (SO_2)	130 mg/Nm^3
	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	50 mg/Nm^3
	Cl* (HCl eta Cl_2 arteko batuketa gisa)	30 mg/Nm^3
	HF	5 mg/Nm^3
3. fokua F6 - 4. labea	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
4. fokua F7 - 5. labea	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
5. fokua F8 - 3. labea	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
6. fokua F9 - 122. makina	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
7. fokua F10 - 123. makina	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
8. fokua F11 - 126. makina	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
9. fokua F12 - 127. makina	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
10. fokua F13 - 128. makina	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
11. fokua F14 - 129. eta 130. makinak	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
12. fokua F15 - 131. makina	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei dagokienez (KOG gisa neurtutakoak), ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoak isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu eta ordubeteko neurketetako batek ere isurtzeko muga-balioak 1,5 faktorea baino kopuru handiagoan gainditzen ez badu.

Ezarritako IMBak lortzen ez badira, beharrezko neurri zuzentzaileak hartuko dira (arazteko sistemak instalatzea, eta abar.) atmosferara egiten diren isurtzeen balio horiek betetzen direla ziurtatzeko.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistema.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isurtze barreiatuak murrizteko, isurtzeak biltzeko, husteko eta arazteko sistema guztien (granailatzeko makina barne) mantentze-lan zuzenak egingo dira, eta gainera, beste jarduera hauek abiatuko dira: instalazioak egunero eta astero garbitzea, kanpoko ateak ixtea, pabiloia orokorrean ixtea, etab., isurtze horiek minimizatzea bermatzeko. Halaber, ibilgailu pisutsuak edo/eta barruko ibilgailuak dabiltzan gune guztiak ondo zolatuta egon beharko dira. Aipatutako informazio guztia agiri honen D.3 ataleko prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan jaso eta erregistratuko da.

B.1.2.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen jatorria eta kokapena.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Industria-urak	Injekzio-makinen desmoldekatzailea duen ur-zirkuitua Bibrarazteko makinen ur-zirkuitu itxia Mekanizazio-zentroa garbitzeko urak	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektorea	X: 542.153 Y: 4.789.491

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

Urteko gehienezko bolumena	5.514 m^3/urte

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kolektorera doazen isurketei buruzko araudian agertzen diren mugak eta baldintzak bete behar ditu azken isurketak, erakunde horrek aintzat har ditzakeen zehaztapen, aldaketa edo salbuespenekin.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Hondakin-uren arazketa-instalazioek edo neurri zuzentzaileek honako hauek izango dituzte:

– Industriako isurketetarako, fisiko-kimikoko araztegia dago, 5 m^3/h-ko dimentsioa duena, eta olio flotatzaileak bereizteko aurretratamendua (skimmer) eta koagulazioa, neutralizazioa (pH-a sodaren bidez zuzentzea), malutapena (polielektrolito anionikoa), flotazioa (DAF aeroflotazioa), geruza anitzeko ohantzeko iragazketa eta lohien tratamendua (prentsa-iragazkian loditu eta deshidratatzea).

– Hustuketaren aurretik, hozte-zirkuituko uren sodio tiosulfatoarekin egindako neutralizazioa.

– Zerbitzuko aire-konpresoreek galdaratxoak purgatu ondoren sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, J.L. French Ansola, SRL enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, kontrolerako kutxetak izango dira, azken isurketa egin aurretik industria-uren, ur sanitarioen eta euri-uren fluxuen laginak hartzea eta banaka karakterizatzea ahalbidetuko dutenak. Kutxeta horiek beharrezko ezaugarriak izan beharko dituzte isurketen lagin esanguratsuak eskuratu ahal izateko. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplika dakiekeen berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen

isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu eta ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Etxebarriako Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

• 1. Prozesua: Galdaketa.

– 1. hondakina: Aluminio-zepak.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/1/1.

Hondakinaren kodea: Q8//R4//S22//C24//H12//A232//B3236.

EHZ kodea: 100309.

Urtean sortutako kantitatea: 1.556,85 t/urte.

Galdatzeko dorrean sortzen diren aluminioaren 2. galdaketaren zepa eta galauts beltzak, aluminioa eta metal pisutsuak dituztenak.

Estalpean dagoen 400 m^2-ko zepen zuloan otarreetan jasotzen da. Aluminiotermia gertatuko balitz, larrialdietarako zulo gehigarri bat eta erreserbako harea dago.

• 2. Prozesua: Gas efluenteak garbitzea.

– 1. hondakina: Gas-xurgaketaren hautsa.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/2/1.

Hondakinaren kodea: Q8//D9//S25//C24//H5//A232//B0011.

EHZ kodea: 100319.

Urtean sortutako kantitatea: 200 t/urte.

Galdaketa-keak iragazterakoan bildutako aluminio alkalinozko hautsak. Big-bag-etan biltzen dira, eta behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten dira.

– 2. hondakina: Ke-araztegiko mahuka-iragazkiak.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/2/2.

Hondakinaren kodea: Q5//D15//S36//C24//H5//A232//B0011.

EHZ kodea: 150202.

Urtean sortutako kantitatea: 50 t/urte.

Gasen arazketa-sistemako mahuka iragazleak aldatzerakoan sortzen dira. Big-bag-etan biltzen dira, eta behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten dira.

• 3. Prozesua: Hondakin-uren tratamendua.

– 1. hondakina: Prentsa-iragazkiaren opila eta zentrifugatzearen hondakinak.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/3/1.

Hondakinaren kodea: Q9//D9//S27//C24//H5//A232//B006.

EHZ kodea: 190813.

Urtean sortutako kantitatea: 40 t/urte.

Aluminio-konposatuak dituzten lohi alkalinoak; moldekatze- eta mekanizazio-prozesuetako industria-urak arazterakoan sortzen dira. Instalazioan bertan edukiontzian jasotzen dira.

Ura bibrarazteko makinan zentrifugatzerakoan sortzen den hondakina (mekanizazio– eta akabera-prozesua), leuntzearen txipen eta gainerako olioekin batera tratatutako piezen materialen lohiak dira. Araztegiko lohiekin batera kudeatzen da.

• 4. Prozesua: Zerbitzu Orokorrak.

– 1. hondakina: Olio erabilia.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/4/1.

Hondakinaren kodea: Q8//D9/R1//L8//C51//H5/6//A232//B0019.

EHZ kodea: 130506.

Urtean sortutako kantitatea: 200 t/urte.

Makina eta instalazioetan olioa birjartzeko eragiketetan eta urak arazteko makinaren skimmer olioak bereizterakoan sortzen da. Olio hidrauliko eta mekaniko erabiliak. 30 m^3-ko lur azpiko segurtasun-andelean biltzen dira.

– 2. hondakina: Emultsio oliotsua.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/4/2.

Hondakinaren kodea: Q8//R1//L9//C51//H5//A232//B0019.

EHZ kodea: 130506.

Urtean sortutako kantitatea: 300 t/urte.

Desmoldekatzailearen zirkuitu itxietako aldaketa eta garbiketetan sortzen da. Konposatu organikoak eta ura dituzte. Zuzenean jasotzen da zirkuituaren andeletatik.

– 3. hondakina: Olio-iragazkiak.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/4/3.

Hondakinaren kodea: Q9//R13//S35//C51//H5//A232//B0019.

EHZ: 150202.

Urtean sortutako kantitatea: Hondakin puntuala.

Makinetako olio-iragazkiak birjartzerakoan sortzen da; olioa metalezko bidoian edo big-bag-etan biltzen da eta hondakinen biltegira eramaten dira.

4. hondakina: Hodi fluoreszenteak.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/4/4

Hondakinaren kodea: Q6//R13 //S40//C16//H14//A232//B0019.

EHZ: 200121.

Urtean sortutako kantitatea: 50 kg/urte.

Merkurioa duten lanparak mantendu eta birjartzerakoan sortzen dira. Hondakinarentzat identifikatutako kutxetan biltzen dira, kudeatzaileak eraman ahal izateko.

– 5. hondakina: Ekipo elektrikoak eta elektronikoak.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/4/5.

Hondakinaren kodea: Q6//R13 //S40//C6/11/18//H6/14//A232//B0019.

EHZ: 160213.

Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Ekipo ofimatikoak birjartzerakoan sortzen dira. Hondakinen biltegian berariazko gunean kutxetan jasotzen da.

– 6. hondakina: Gai arriskutsuak eduki dituzten metalezko ontziak.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/4/6.

Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A232//B0019.

EHZ: 150110.

Urtean sortutako kantitatea: Hondakin puntuala.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da. Hondakinarentzat identifikatutako gunean jasotzen da, hondakin arriskutsuen biltegian.

– 7. hondakina: Gai arriskutsuak eduki dituzten plastikozko ontziak.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/4/7.

Hondakinaren kodea: Q5//R3//S36//C41/51//H5//A232//B0019

EHZ: 150110

Urtean sortutako kantitatea: 36 kg/urte.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da. Hondakin horientzat identifikatutako gunean, hondakinen biltegian, edukiontzietan biltzen dira eta bolumen txikiko ontziak paletetan gorde eta erretraktilatzen dira.

– 8. hondakina: Aerosolak.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/4/8.

Hondakinaren kodea: Q6//R13//S-G36//C41//H3b//A232//B0019.

EHZ: 160504.

Urtean sortutako kantitatea: Hondakin puntuala.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da. Pinturak eduki dituzten aerosolak. Identifikatutako kutxetan biltzen dira.

– 9. hondakina: Solido kutsatuak- Ehun-materialak.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/4/9.

Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34//C51//H5//A232//B0019.

EHZ: 150202.

Urtean sortutako kantitatea: 10 t/urte.

Olioz bustitako xurgatzaile eta trapuak, kotoiak eta eskularruen bidez olio-ihesak eta -isuriak jasotzerakoan sortzen dira. Bidoian edo big-bag batean biltzen da sortzen den puntuan eta ondoren, hondakinen biltegira eramaten dira.

– 10. hondakina: Pilak eta bateriak.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/4/10.

Hondakinaren kodea: Q6//R13 //S37//C11/16//H6//A232//B0019.

EHZ: 200133.

Urtean sortutako kantitatea: 50 kg/urte.

Multzoka jasotzen diren pila eta bateria agortuak. birjartzerakoan sortzen dira. Hg, Cd, Zn eta bestelako metal oxidoak dituzten pilak. Hondakinarentzat berariazko gunean adierazitako edukiontzian.

– 11. hondakina: Disolbatzaile organiko ez-halogenatua.

Identifikazioa: B48966154/4800000587/4/11.

Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41/H3b/5//A232//B0019.

EHZ: 140603.

Urtean sortutako kantitatea: 220 l /urte.

Piezak eta instalazioak garbitzeko lanetan sortzen da. Bidoian jasotzen da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) «Emultsio oliotsua» hondakina zuzenean jaso behar da sortzen den instalazioko andeletatik (desmoldekatzailearen zirkuitu itxia), aurretik ontziratu eta biltegiratu gabe, eta baimendutako kudeatzaileari eman behar zaio.

c) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

d) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

e) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabete baino gehiago gorde.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. J.L. French Ansola, SRL enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) J.L. French Ansola, SRL enpresak sortutako olio erabilia industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko da.

j) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu J.L. French Ansola, SRL enpresak.

k) Aipatutako irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera, J.L. French Ansola, SRL enpresak bere ezaugarriak direla-eta olioari dagozkion eta euren kudeaketa aipatutako Dekretuak arautzen dituen hondakinen ezaugarri fisiko-kimikoak egiaztatu beharko ditu, baimendutako kudeatzaileari bidali aurretik tratamendua jaso dezaten. Aipatutako Dekretuaren 20. artikuluak ezarritakoaren arabera, egiaztapen hori ez da nahitaezkoa izango J.L. French Ansola, SRL enpresak olioaren hondakin horiek Euskal Autonomia Erkidegoko transferentzia-estazio baimendu batera bidaliz gero. Kasu horretan, transferentzia-estazio horren titularrak egin beharko du egiaztapena olio erabilia akaberako kudeatzaileari bidali aurretik.

l) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoa otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

m) J.L. French Ansola, SRL enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko

1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

n) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. J.L. French Ansola, SRL enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

o) J.L. French Ansola, SRL enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

p) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidali beharko dio.

q) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, J.L. French Ansola, SRL enpresak neurri babesleak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

r) Aurreko f), g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), o) eta p) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

s) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, J.L. French Ansola, SRL enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2. Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Tonerrak eta inprimatzeko tintak	080313	Bulegoak	-
Aluminio-gainak	100316	Galdaketa	175.351 kg
Aluminio-txirbilak	120103	Mekanizazioa	331.175 kg
Aluminioaren isurbide zikina	120103	Galdaketa	36.820 kg
Txatarra metalikoak	170407	Mantentze-lanak. Zerbitzu Orokorrak	3.820 kg
Papera eta kartoia	200101	Paketatzea eta bulegoak	22.330 kg
Apurtutako paletak	200138	Paketatzea	8.463 kg
Labearen arragoa. Material erregogorra	161104	Labeen mantentze-lanak	33.440 kg
Paketatzeko plastikoak	200139	Paketatzea.	
Mahuka hidraulikoak	200140	Mantentze-lanak	

«Tonerra eta inprimatzeko tintak» izeneko hondakinaren zenbatetsitako produkzioaren datuak aurkeztu beharko dira.

a) «Labearen erregogorrak» hondakinen kasuan, hondakin horiek ispilu-sarrera dute gaur egun indarrean dagoen Europako hondakinen zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek aurrez karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Baldin eta hondakin hori arriskutsua dela ezartzen bada, Ebazpen honetako B.1.3.1 atalean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

b) B.1.3 atalean bereiztearen eta hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoen inguruan xedatutakoari jarraituz, nahasketak izeneko hondakinek ezingo dute baliotu daitekeen hondakin-frakziorik izan. Horri dagokionez, egungo egoeran Euskal Autonomia Erkideagoan baliotu daitezkeen hondakin-frakzioak hauek dira: papera eta kartoia, zura, plastikoak, urratzaileak, metal ferrikoak eta metal ez-ferrikoak.

c) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

d) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

e) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta Ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. J.L. French Ansola, SRL enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, horiek aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

f) Halaber, hondakin geldo eta geldoarazien kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

g) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

h) Aurreko e), f) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta g) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, J.L. French Ansola, SRL enpresak lurzorua babesteko beharrezko neurriak hartu beharko ditu, erabilitako materialen eta identifikatutako arrisku-guneen arabera.

Gasolioa deskargatzerakoan tanta-jarioak saihesteko neurriak hartu beharko dira. Gasolioa biltegiratzeko orduan, petrolio-instalazioei aplikagarria zaien araudian jasotako babeserako neurriak bete beharko dira eta ezarritako berrikusteak eta ikuskapenak egin beharko dira.

Produktu kimikoak biltegiratzeko gunean euri-ura sartzea saihestuko da, estalkia luzatuz.

Isurketek, jarioek edo ihesek kaltetu ditzaketen lursaileko gainazal guztiak zolatuak eta iragazgaiztuak egongo dira.

Produktu eta hondakin arriskutsuen biltegiratzeek beharrezko segurtasun-neurriak izango dituzte, lurzoruari egin diezaioketen kaltea saihesteko. Oro har, isurketak, jarioak edo ihesak eragozteko moduan biltegiratuko dira lehengaiak, erregaiak eta produktuak. Era horretan, ontzi mugikorretan zein finkotan gordetako produktu kimiko likido guztiek (batez ere substantzia eta prestakin arriskutsuak) eta gordetako erregai likidoek jarioak biltzeko sistemak izango dituzte.

Produktu kimikoak gordetzeari buruz indarrean dagoen araudiak eragindako biltegiratzeek araudi horretan ezarritako babes-neurriak beteko dituzte. Horrela, glikola produktu kaltegarri gisa biltegiratzea legeztatu beharko da, Produktu Kimikoak Biltegiratzeko Araudiaren ITC MIE APQ-7 jarraibide teknikoetan ezarritakoari jarraituz.

Hondakinak Ebazpen honi dagozkion ataletan adierazitako pautak jarraituz biltegiratuko dira.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) J.L. French Ansola, SRL enpresak botatzen dituen kutsatzaileak kontrolatu beharko ditu, ondorengoaren arabera:

Fokuaren zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	48001498-01	F3 - Soda duten ultrasoinuz moldeak garbitzea	Partikula solidoak (PS)	5 urtetik behin
2	48001498-02	F5 - Galdatzeko dorrea + 6. labea	Partikula solidoak (PS)	Urtero
			Nitrogeno oxidoak (NOx)	
			Karbono monoxidoa (CO)	
			Sufre dioxidoa (SO2)	
			Karbono organikoaren guztizkoa (KOG)	
			Cl *(HCl eta Cl_2 arteko batuketa gisa)	
			Dioxinak eta furanoak (PKDD/PKDF)	Lehen urtean
3	48001498-03	F6 - 4. labea	Partikula solidoak (PS)	3 urtetik behin
			Nitrogeno oxidoak (NOx)	
			Karbono monoxidoa (CO)	
4	48001498-04	F7 - 5. labea	Partikula solidoak (PS)	3 urtetik behin
			Nitrogeno oxidoak (NOx)	
			Karbono monoxidoa (CO)	
5	48001498-05	F8 - 3. labea	Partikula solidoak (PS)	3 urtetik behin
			Nitrogeno oxidoak (NOx)	
			Karbono monoxidoa (CO)	
6	48001498-06	F9 - 122. makina	Partikula solidoak (PS)	5 urtetik behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	
7	48001498-07	F10 - 123. makina	Partikula solidoak (PS)	5 urtetik behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	
8	48001498-08	F11 - 126. makina	Partikula solidoak (PS)	5 urtetik behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	
9	48001498-09	F12 - 127. makina	Partikula solidoak (PS)	5 urtetik behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	
10	48001498-10	F13 - 128. makina	Partikula solidoak (PS)	5 urtetik behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	
11	48001498-11	F14 - 129. eta 130. makinak	Partikula solidoak (PS)	5 urtetik behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	
12	48001498-12	F15 - 131. makina	Partikula solidoak (PS)	5 urtetik behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak baimendutako kontrol erakunde batek (BKE) egin beharko ditu (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez, zortzi orduan zehar neurtuta; eta dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6-8 orduko neurketa bat), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «BKEen gutxieneko txostenean» ezarritakoaren arabera egin beharko dira. Edonola ere, isurtzeen kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak Ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
1	Industria-urak	pH, eroankortasuna, SST, OEK, olioak eta koipeak, guztizko metalak (Fe, Cr, Cd, Pb, As, Mn, Ni, Zn, Cu).	Hiru hilero	Kanpokoa (BBUP)

b) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek edo BBUPek egin eta egiaztatuko du, eta organo eskudunak adierazitako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, baimen honekin batera zehaztu diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen baditu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea
Ekoizpena	Injektaturiko aluminioa(1)	T	Injektaturiko aluminioa	T
Lehengai eta osagarrien kontsumoa	Lehengaien guztizko kontsumoa: - Lingoteak - Itzulerak - Karterra	T	Lehengaien guztizko kontsumoa: - Lingoteak - Itzulerak - Karterra	T
			Lehengaien guztizko kontsumoa/injektaturiko aluminioa	T/t
	Lingoteen kontsumoa	T	Lingoteen kontsumoa/ guztizko lehengaiak	% (t/t)
	Itzuleren kontsumoa	T	Itzuleren kontsumoa/guztizko lehengaiak	% (t/t)
	Karterraren kontsumoa	T	Karterraren kontsumoa/guztizko lehengaiak	% (t/t)
	Desmoldekatzaileen kontsumoa	T	Desmoldekatzaileen kontsumoa / injektaturiko aluminioa(2)	T/t
Energiaren kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa	Kwh	Gas naturalaren kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/kwh (%)
	Elektrizitatearen kontsumoa	Kwh	Elektrizitatearen kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/kwh (%)
	Energiaren kontsumoa	Kwh	Energia berezia (energia kontsumitua)/injektaturiko aluminioa	Kwh/t
Isurtze atmosferikoak	Partikula solidoen isurtzea (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua) / 1. Fokutik 12.era	Mg/nm^3	Partikula solidoen isurtzea	kg
	Partikulen guztizko isurtzea	kg	Partikulen guztizko isurtzea	kg
			Partikulen isurtzea / injektaturiko aluminioa	kg/t}
	Kohen isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua) / 6.fokutik 12. Fokura	Mg/nm^3	Kohen isurtzeak	T
	Kohen guztizko isurtzea	kg	Kohen guztizko isurtzea	kg}
			Kohen isurtzea / injektaturiko aluminioa	kg/t
Uraren kontsumoa	Uraren kontsumoa	M^3	Uraren kontsumoa	M^3
			Uraren kontsumoa / injektaturiko aluminioa	M^3/t
Uretara egindako isurketak	Industria-isurketak/ bilbao bizkaia ur partzuergoaren kolektorea	M^3	Industria-isurketak/helmuga	M^3
	Euri-uren isurketa/ bilbao bizkaia ur partzuergoaren kolektorea}	M^3	Euri-uren isurketa/helmuga	M^3
	Hondar-kloroa (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-kopurua) / 1. Isurketarako	Mg/l	Hondar-kloroa (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 3. Isurketarako	Mg/l
Hondakinak	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	T	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua	T
	1.		Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua / injektaturiko aluminioa	T/t
			Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua / guztizko hondakinak	T/t (%)
	Zepak	T	Zepak / injektaturiko aluminioa	T/t
	Araztegiko lohiak	T	Araztegiko lohiak	T
	Hondakin arriskutsu baliotuak	T	Hondakin arriskutsu baliotuak / sortutako hondakin arriskutsuak	T/t (%)
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua	T	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua	T
	1.		Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua / injektaturiko aluminioa	T/t}
			Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua / guztizko hondakinak	T/t (%)

	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak	T	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak / sortutako hondakin ez-arriskutsuak (konposizioaren hondarrak, …)	T/t (%)
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isuriekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu:airea, ura, lurzorua)	Kopurua/urte	Ustekabeko isuriekin lotutako gorabehera kopurua	Kopurua/urte
Iks	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/ez Zein/ urtea	Ekoscan/ urte Eta/edo Iso14001/ urte Eta/edo Emas/ urte	Bai/ez Zein/ urtea

(1) Metal likidoa lehengaiak eta barruko itzulerak batuta kalkula daiteke.

(2) Metal likidoa lehengaiak eta barruko itzulerak batuta kalkula daiteke.

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori Ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den Ingurumena Zaintzeko Programako testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30 baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta Ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, botako diren kutsagarriak eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera honako hauen aplikazio esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (2753 «Metal arinen galdaketa» epigrafea), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, J.L. French Ansola, SRL enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduerak.

Aurkeztutako dokumentazioan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa-mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, olioak, desmoldekatzaileak, erregaiak, disolbatzaileak, eta orokorrean, fabrikan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hauts-produktuak biltegiratzeko, iragazkiak dituzten zulo itxiak egongo dira.

h) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen

araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

i) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

j) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

k) Nabeen barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.

l) Hidrokarburoen bereizgailuak aldian-aldian ikuskatuko dira, hondakinak pilatu ez daitezen; dekantagailuetan eta bereizgailuetan metatutako lohiak eta flotatzaileak aldian-aldian kendu behar dira. Hondakin horiek baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio.

m) Uren arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala dabilela berma dadin. Behar izanez gero, gordailu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.

n) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen eremuetan.

o) Arazteko instalazioek lohien tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, bertan tratatzeko.

p) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

q) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu honetan, honako baldintza hauek azpimarratu behar dira:

Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

Araztegia ustiatzeko enpresa espezializatu batek egindako protokolo edo eskuliburu bat izango da nahitaez, eta ekipo elektromekaniko, zunda, mintz, dosifikatu eta kontrolatzeko tresna, eta abarren azterketa eta mantentze-lanak finkatuko dira bertan.

Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

Era berean, nahitaez kontratu bat sinatzea eskatzen da araztegiaren mantentze-lanetarako, eta prozesuaren, errendimendu eta arazketaren, ekipo elektromekaniko eta sentsoreen funtzionamendu egokia ikuskatzeko.

r) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ihesak, jarioak, lurzorua edo urak kutsa

ditzaketen substantzia, erregai edo hondakinen isurketa garrantzitsuak; suteak), gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari.

s) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

– Gertakari mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

– Iraupena.

– Ustekabeko isuria bada, emaria eta isuritako gaiak.

– Mugak gaindituz gero, isurtzeei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen balioespena.

– Hartutako neurri zuzentzaileak.

– Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.

– Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

t) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin J.L. French Ansola, SRL enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, Ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.1.2 (11. eta 12. fokuetako UTM koordenatuak); B.1.2.4 (Arazte– eta kontrol-instalazioak egokitzeko programa); B.1.3.1 (Zerbitzu-medikuaren hondakin sanitarioen balizko sorkuntzari buruzko informazioa); B.1.3.1.f eta B.1.3.2.e (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak onartzeko agiria); B.1.3.1.p eta B.1.3.2.g (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistro-eredua); B.1.3.2 (Sortutako «tonerra eta inprimaketa-tintak» hondakinaren kopurua); B.1.3.2.a (Aluminio-gainak eta labeko erregorrak hondakin ez-arriskutsu gisa karakterizatzea); B.1.3.2.b (Baliotu daitezkeen hondakin ez-arriskutsuen bereizketa); B.1.4 (Lurzorua babesteko baldintzak); C.1.c (Atmosferaren neurketak, BKEen txostenak); C.1.1 (Isurtze atmosferikoen erregistroa); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (Isurtze eta hondakinen sorkuntzaren balioespena programatutako geldialdietan); D.3.a (Mantentze-lanen eskuliburua); D.3.h (biltegiratzeen ziurtagirien egiaztapena); D.3.i (Larrialdietarako materialen zerrenda eta babes pertsonalerako ekipoak); D.3.j (Kubetak husteko protokoloa); eta D.3.t (Suteen aurkako araudia betetzen denaren ziurtagiria).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– J.L. French Ansola, SRL enpresak Ebazpen honen xede den injektaturiko aluminioaren galdaketa eta mekanizazio jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ez egiaztatzea Ebazpen honetako Hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– J.L. French Ansola, SRL enpresaren nortasun juridikoa - bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea J.L. French Ansola, SRL enpresari, Etxebarriako Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez dezakete Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 25a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.